

**BAZTERTUTAKO ZAPATA GEHIAGO EGON
EZ DADIN**

Maialen Elorza

Oiartzun

Igandeetako aldizkari horietako batean ikusi zai-
tuztet,

Danubioaren ertzean,

Budapesten bihotzean,

juduen oroimenez egindako oroitarri bitxia.

Pentsatu dut, pixkanaka-pixkanaka,

zauriak sendatuz joan direla,

orbanak ezabatuz,

oroitzapenak ahaztuz,

eta ibai ertzean, zain dauden zapata triste batzuk
soilik geratu zaretela.

Zapatak jendearen eguneroko paisaia bilakatu
zarete.

Beren zereginetik lanpetuta, ez dizuete errepara-
tzen,

ez dizuete garrantzirik ematen;

beste oroigarri bat, beste monumentu bat beste-
rik ez zarete.

Baina zergatik zaudete hor?
Zergatik hainbeste burdinazko zapata?
Zergatik hainbeste oinetako, Straussen Danubio
urdinaren ertzean,
gizakiak gorriz tindatu zuen Danubioaren ertze-
an?

Zeren zain?
Zeren zain zaudete?
Zeren zain, duela hainbeste urte bazterrean utzi-
tako zapatak?

Jantzi ohi zintuzten mutiko haren barrea entzu-
teko zain.

Zapata hautsi batzuk,
lore sorta lehor baten ondoan.
Kalean jolasean aritzeaz hautsitako zapatak.
Berriz ere bere barrea entzuteko zain.

Emakume gazte haren oin finak berriz ere sen-
titzeko zain.

Takoidun zapata dotoreak,
senarrak oparitutako zapata preziatu haiek,
bide bazterrean gelditu zirenak
oin leun haiek berriz ere sentitzeko zain.

Jabearen azken urteak berekin bukatzeko zain.

Agure zahar haren zapatak.
Hainbeste bide ibiliak,
bizitzako momentu gozoak eta garratzak,
amaieraraino berekin ibiltzeko zain.

Baina zuek hor zaudete,
egungo zapatei gogorarazteko
oraindik zapata asko salba daitezkeela.
Egungo zapatei gogorarazteko
gizakia zeinen hauskorra den.
Egungo zapatei gogorarazteko
iragana berriz errepika litekeela.
Baztertutako zapata gehiago egon ez dadin,
Straussen Danubio urdinaren ertzean.